

# “INTERNET GOXO-GOXO” GOZOGINTZAKO LEHEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

Teknologia berriak eta gozoak elkartzen dituen  
Euskadiko Lehen Lehiaketa

## 2008ko apirilaren 25etik maiatzaren 13ra arte

- ANTOLATZAILEAK: KZgunea, SPRI eta internet&euskadi elkarteak.
  - LAGUNTZAILEAK: Euskadiko Pastelgile eta Gozogile Artisauen sektorea.
  - EKITALDIA: KZguneak, SPRIk, internet&euskadi elkarteak eta Euskadiko Pastelgile eta Gozogile Artisauen sektoreak antolatutako lehiaketa Laudion (Araba), maiatzaren 17an, ospatuko den “Interneten egunaren” baitan kokatzen da. Ekimenaren xedea Interneten Nazioarteko Eguna goxo-goxo ospatzea da.
  - SARIA: - Irabazleari 1.000 gozo ale egiteko enkargua egingo zaio. Gozoak Laudion ospatuko den Internet Egunean (2008ko maiatzaren 17an, goizeko 10:00etan) dastatu ahal izango dira. Kontratuaren zenbatekoa **2.000 eurokoa** (+ BEZa) izango da, garraraioa barne.
  - PARTE-HARTZAILEAK: Lehiaketan Euskadiko Pastelgile eta Gozogile Artisauen sektoreko enpresek parte hartu dezakete, baita Ostalaritzako Eskolek ere.
  - EPEA: Proposamenak **2008ko maiatzaren 13a** baino lehen aurkeztu behar dira.
  - PROPOSAMENEN AURKEZPENA: Parte-hartzaile bakoitzak 2 proposamen aurkeztuko ditu gehienez ere. Proposamenak posta elektronikoz bidali behar dira [jmugica@spri.es](mailto:jmugica@spri.es) helbidera (Javier Múgica-ren izenean). Proposamenean ondorengo informazioa jaso behar da:
    - **Postrearen izena**
    - **Enpresaren** identifikazio datuak (harremanetarako pertsona, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa)
    - Proposatzen den postrearen **argazkiak**
    - Postrea prestatzeko **errezeta** (egiteko moduaren deskribapena, beharrezkoa den denbora eta tresnak, osagaiak eta haien kopuruak zehaztuz). Gainera, postrea prestatzeko garrantzitsuak diren bestelako oharrak ere gehituko dira.
  - EPAIMAHAIAREN ERABAKIA: Epaimahaiaren erabakia 2008ko maiatzaren 14an (asteazkena) emango da jakitera. Erabakia parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoz eta antolakundeko webguneetan argitaratuko da.
  - EPAIMAHAIIA: Epaimahaia hiru lagunek osatuko dute, hots, ordezkari bat antolatzaile bakoitzeko (SPRI, KZgunea eta internet&euskadi elkarteak).
  - IRIZPIDEAK: Proposamenak internet eta teknologia berriekin duen lotura; Laudioko Internet Egunarekin duen zerikusia; Internet egunera bertaratzen direnen artean banatzeko erraztasuna (gozoak ez du hotzik behar izango ondo kontserbatzeko eta erraz kontsumitu behar da).
- Errezeten sortzaileek baimena ematen diete antolatzaileei beren errezetak argitaratzeko egile-eskubiderik ordaindu gabe.